



5.2 DIRU-LAGUNTZA LERROA: KIROL ENTITATEAK. EZOHICO JARDUERAK – 2019. OINARRI ESPEZIFIKOAK.

LÍNEA DE SUBVENCIÓN 5.2: ENTIDADES DEPORTIVAS. ACTIVIDADES EXTRAORDINARIAS – 2019. BASES ESPECÍFICAS.

1- Diru-laguntzaren xedea.

Lerro honen xedea da diru-laguntzak ematea, hain zuzen ere ezohiko kirol jarduerak kofinantzatzeko eta sustatzeko, adibidez, zerrenda itxia izan gabe, Errenteriako kirol jardueraren dinamizazioa dakarten kirol probak eta lehiaketak antolatu eta egitea (federatua, eskolakoa edo amateurra), ohiko lehiaketa ofizialak kanpo utzita, klub en urteurrenak, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo egiten diren ezohiko lehiaketa ofizialetarako klub en bidaiak eta kirolari indibidualei emandako diru-laguntzak, 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31 bitarte egindako eta Udaleko Kiroletako Azpi-sailaren helburuekin bat datozen jarduerak.

Ez dira onartuko ohiko jardueren buruzko diru-laguntza eskaerak, diru-laguntza lerro propioa baitute.

2.- Diru-laguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren diru-laguntzen gehienezko kopurua.

Kirol jarduerak kofinantzatzeko diru-laguntzen zenbatekoa 2019ko aurrekontuko ondorengo partidaren kontura izango da:

- 1.1530.481.03.341.10: Kirol Entitateak: Ezohiko Jarduerak.

Diru-laguntzaren den lerro honetarako dagoen aurrekontua 19.000,00.-eurokoa da.

Diru-laguntza deialdi hau onartzen den unean 2019ko aurrekontua izapidetzen ari bada ere, espedientean jasoa dago alkateak aurkeztu duen aurrekontu proiektuak aurreikusten duela aipaturiko partida.

1- Objeto de la subvención.

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones para cofinanciar e impulsar programas de actividades deportivas extraordinarias, como por ejemplo y sin que suponga una relación cerrada: organización y realización de pruebas y torneos deportivos (de carácter federado, escolar o amateur) que supongan una dinamización de la actividad deportiva de Errenteria (excluidas las competiciones oficiales ordinarias), aniversarios de clubes, viajes de clubes a competiciones oficiales no ordinarias fuera del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ayudas a deportistas individuales, realizadas entre el 1 de septiembre de 2018 y el 31 de agosto de 2019 y cuyos fines sean acordes con los objetivos de la Subárea de Deportes del Ayuntamiento.

No se admitirán las solicitudes de subvención relativas a actividades ordinarias, toda vez que disponen de su propia línea de subvención.

2- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.

El importe de las subvenciones para cofinanciar programas de actividades deportivas irá con cargo a la siguiente partida del presupuesto del año 2019:

- 1.1530.481.03.341.10: Entidades Deportivas: Actividades Extraordinarias.

La disponibilidad presupuestaria para esta línea de subvención asciende a 19.000,00.- euros.

Si bien el presupuesto de 2019 se encuentra en tramitación en el momento de aprobarse la presente convocatoria de subvención, consta en el expediente que el proyecto de presupuesto presentado por el



Diru-laguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean harturik, ezta aldi berean beste diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin harturik ere.

3.- Pertsona onuradunak, diru-laguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatze era.

Oro har, diru-laguntzetarako aukera izan dezakete programarekin zerikusia duten eta helbide soziala Errenterian duten pertsona fisikoek edo erakunde juridiko pribatuek, baldin eta jarduerak burutzen badituzte eta dirua irabaztea xede ez badute. Salbuespena eginda, parte-hartu ahal izango dute Errenteriatik kanpo errotuta dauden pertsonak eta erakundeek, baldin eta beren jardueraren zati nabarmena Errenterian burutzen badute edo jarduerari udalerrarentzat interesgarria irizten bazaio.

Irabazi-asmorik gabeko entitatetzat hartuko dira elkartearen helburuekin bat datozen jarduerak burutu eta etekinak elkarrekin lortu nahi dituen helburuetan inbertitzen dutena.

Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskatzaileek Errenteriako Udalak 2019 urtean diru-laguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren seigarren oinarrian adierazitako dokumentazioaz gain, ondorengoa ere aurkeztu behar dute eskaerarekin batera:

a) Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Entitateen Erregistroan izena emana dutela egiaztatzen duen ziurtagiria. Urte berean beste diru-laguntza eskaerarik egin bada, ez da beharrezkoa izango ziurtagiri hori aurkeztea.

Alcalde contempla la partida mencionada.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

3.- Personas beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.

Con carácter general podrán optar a las subvenciones las personas físicas o entidades jurídicas privadas sin ánimo de lucro que tengan su domicilio social en Errenteria y realicen actividades relacionadas con el programa. Excepcionalmente podrán acceder las entidades o personas radicadas fuera de Errenteria cuando una parte apreciable de su actividad se desarrolle dentro del ámbito del municipio o se considere de interés para el mismo.

Se consideran entidades sin ánimo de lucro aquellas que desarrollen actividades acordes con el objeto de la asociación y cuyos beneficios se inviertan en los fines que persigue la asociación.

Documentación a presentar con la solicitud:

Los solicitantes deberán presentar con la solicitud, además de la documentación establecida en la base sexta de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2019, la siguiente documentación:

a) Certificación actualizada de la inscripción en el Registro General de Asociaciones del Gobierno Vasco. Dicha certificación no será necesaria si durante el mismo año ya fue aportada para otra solicitud de subvención.



b) Eskatera egin duen elkarte edo erakundearen estatutuak, aurretik aurkeztu ez badira edo aldaketaren bat egin bada.

4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Diru-laguntza xedeko programetarako diru-laguntza eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta amaituko da 2019ko abuztuaren 31n.

5.- Eskabideak baloratzeko irizpideak.

Eskabideak baloratzeko irizpidea norgehiagoka izango da. Beraz, eskari guztietan ondoko irizpide objektiboak ezarriko dira:

Helburu honetarako urtero onartzen den aurrekontu partidako kopurua onartutako eskaera guztiei emandako puntuen baturarekin zatituko da eta horrela puntu bakoitzaren balore ekonomikoa kalkulatu da. Puntu bakoitzaren balore ekonomiko hori eskari bakoitzak lortutako puntu kopuruarekin biderkatuko da, eta horrek emango digu jaso beharreko diru kopuruaren zenbatekoa, 2. puntuan adierazitako mugarekin.

Genero Oreka

Generoaren aldetik oreka dago (%40-60) ... 10 puntu
 Gehienbat gizonek parte hartzen dute (>%61)
 0 puntu
 Gehienbat emakumeek parte hartzen dute (>%61)
 20 puntu

Programan parte hartzen duten pertsonen kopurua

20 parte-hartzaitatik behera 5 puntu
 21 eta 79 parte-hartzaile bitarte 10 puntu
 80 eta 120 parte-hartzaile bitarte. 15 puntu

b) Estatutos de la asociación o entidad solicitante, si no han sido presentadas con anterioridad o si han sufrido alguna modificación.

4.- Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de las solicitudes de subvención para programas objeto de esta subvención estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 31 de agosto de 2019.

5.- Criterios de valoración de las solicitudes.

El criterio de valoración de las solicitudes será el de concurrencia competitiva. Por lo tanto, en todas las solicitudes se aplicarán los siguientes criterios objetivos:

La partida presupuestaria aprobada anualmente para este concepto se dividirá entre la suma de puntos otorgados a todas las solicitudes admitidas y así se calculará el valor económico de un punto. Este valor económico de cada punto se multiplicará por los puntos conseguidos por cada solicitud, lo que determinará la cuantía a percibir, con el límite indicado en el punto 2.

Equilibrio de Género

Hay equilibrio de Género (40-60%) 10 puntos
 Participan mayoritariamente hombres (>61%)
 0 puntos
 Participan mayoritariamente mujeres (>61%)
 20 puntos

Número de personas participantes en el programa

Menos de 20 participantes 5 puntos
 De 21 a 79 participantes10 puntos
 De 80 a 120 participantes15 puntos



121 parte-hartzaitetik gora 20 puntu

Programak izan duen eragina (eragina komunikabideetan, sare sozialak,)

Inpaktu mediatiko handia 10 puntu arte

Inpaktu mediatiko ertaina 5 puntu arte

Programaren kirol maila

Parte-hartzea Udalerrian / Probintzian 5 puntu

Parte-hartzea Erkidegoan 10 puntu

Parte-hartzea Estatuan / Nazioartean 15 puntu

Aurrekontuaren emaitza negatiboa

3.000,00.- eurotik beherako aurrekontu emaitza negatiboa 2 puntu

3.001,00.- eta 6.000,00.-euro bitarteko aurrekontu emaitza negatiboa 5 puntu

6.001,00.- eta 12.000,00.-euro bitarteko aurrekontu emaitza negatiboa 10 puntu

12.000,01.- eurotik gorako aurrekontu emaitza negatiboa 15 puntu

Hizkuntza ofizialak erabiltzea

Hizkuntza ofizialak erabiltzeko aurreikuspena
..... 12,50 puntu arte.

6.- Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntza diru-kopuruak era honetan ordainduko dira:

%60 diru-laguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin.

%40 egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Más de 121 participantes 20 puntos

Impacto mediático del programa (presencia en medios de comunicación, redes sociales, ...)

Alto Impacto hasta 10 puntos

Impacto Medio hasta 5 puntos

Nivel Deportivo del Programa

Participación Local / Provincial 5 puntos

Participación Autonómica 10 puntos

Participación Estatal / Internacional 15 puntos

Resultado presupuestario Negativo

Resultado presupuestario negativo inferior a 3.000,00.-euros 2 puntos

Resultado presupuestario negativo entre 3.001,00.- y 6.000,00.-euros 5 puntos

Resultado presupuestario negativo entre 6.001,00.- y 12.000,00.-euros 10 puntos

Resultado presupuestario negativo superior a 12.000,01.-euros 15 puntos

Uso de las lenguas oficiales

Previsión del uso de las lenguas oficiales
..... hasta 12,50 puntos.

6.- Abono de la subvención.

Los importes de subvención serán abonados de la siguiente forma:

60% tras la resolución de asignación de subvenciones, con carácter de anticipo, y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado.

40% tras presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.



7.- Diru-laguntzaren justifikazioa.

Diru-laguntzaren bigarren ordainketa, diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hau aurkezteko epe muga izango da: 2019ko azaroaren 30a.

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, Errenteriako Udalak 2019 urtean diru-laguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren hamazazpigarren oinarrian adierazitakoaz gain:

- a) Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza.
- b) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoak.

Diru-laguntzaren eskabide ereduarekin batera doan dokumentazioa bete beharko da.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da Errenteriako Udalak 2019 urtean diru-laguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorrei jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

7.- Justificación de la subvención.

El segundo pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite 30 de noviembre de 2019.

En concreto la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en la base decimoséptima de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2019:

- a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.
- b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

Deberá cumplimentarse la documentación que se adjunta al modelo de solicitud de subvención.

Nota importante: esta convocatoria deviene de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2019. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.